



Zabaleko ikastetxeak, zailtasun guztien gainetik, hezkuntza proiektuaren oinarri izan du eskolako partaideen eta familien arteko elkarlana.

Zabaleko ikastetxean jaso ditugu gure inguruan sustraitutako familiak eta Amurrion etorri berri direnak ere.

Komunikatu honen bitartez, **ZABALEKO BIZIRIK PLATAFORMA** eta Zabaleko ikastetxeko (Amurrio) Hezkuntza Komunitate osoak Euskal Herriko Guraso Elkarteei, eragile sozialei, alderdiei zein Amurrioko herritarrei honakoa jakinarazi nahi diegu:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak maiatzaren 20an Amurrioko Lehen Hezkuntzako bi ikastetxeetako, Zabaleko eta Mendiko ikastetxeak bat egiteko proposamena helarazi zigun.

Horren ondorioz, Zabaleko Eskola, Euskal Eskola Txikien Sareko partaide dena, desagertu egingo litzateke.

Amurriok ikastetxe publiko bakarra izango luke familia guztiak hartzeko.

Bat egite honen ondorioz gure Eskola Txikiaren eredia desagertuko litzateke; Adinen arteko aniztasuna, Amurrion errotua, publikoa eta euskalduna.

Honek, 62 urteko kudeaketa publikoa desagerraraziko luke.

62 urte elkarlanean gure komunitatearekin, gure auzoarekin, San José auzoarekin. Eskola auzokide guztion topagunea izan da urte hauetan guztietan.

62 urte enplegu publikoaren alde.

Une honetatik aurrera abian dago **ZABALEKO BIZIRIK** plataforma, gure eskola defendatzearen aldeko ahalegin guztien topagunea izango dena gaurtik aurrera.

Euskal Herriko guraso elkarteei, eragile sozial eta politikoei, sindikatuei eta hezkuntza proiektu hau babestu nahi duten norbanako guztiei dei egin nahi diegu. Bat-bateko eta adostu gabeko erabaki honen aurrean, zuen guztien babesa eskatzera gatoz. Guztion ekimenak ongi etorriak izango dira.

Mobilizazioak sustatuko ditugu, aldarrikapenerako jai-ekitaldiak prestatuko ditugu, sare sozialetan gure egoeraren berri emango dugu.

Publiko egingo dugu, publikoa jokoan dago-eta.

Hezkuntza oinarritzko zerbitzu publikoa da eta honek zerbitzu publikoaren prekarizazioa dakar.



62 urteko HISTORIA BIZIA, arrastoa utzi duena gure artean, irakaskuntza-ikaskuntzan zein elkarbizitzan.

Eskola Txikia gara, bihotz-handikoa proiektu guztietan eta horrela jarraitu nahi dugu.

Zabaleko Eskola defendatuko dugu

Horixe gure proiektua: euskalduna, publikoa, gertukoa eta txikia.

ZABALEKO BIZIRIK!

GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!!

MURRIZKETARIK EZ!!

